

MR. BULLYING

Lehen hezkuntzako hirugarren zikloa





HEZITZAILEARENTZAKO SARRERA. ESKOLA BAZTERTZEA.

Eskola jazarpena edo “bullying” gaur egungo pilpileko bilakatu da. Fenomeno hu ez da berria, baina arazo honi aurre egiteko edota egoera gertatu ondoren irtenbide egokiak bilatzeko gizarte kontzientzia sortu da orain.

Ikasgela eskenatoki soziala da, aktoreekin (ikasle eta irakasle) zeintzuek eguneko ordu askoz elkarrekintzan ibiltzen diren eta non bakoitzak bere neurrirako moduko papera bizi duen.

Ikasle bakoitzak, ikasgela horretan gustora errealizatua sentitzeko “norbait izateko” papera zehatza jokatzen du. Rol akademikoen bitartez hau lortzen ez duten ikasleek, rol alternatiboak garatzeko joera izaten dute, eta hauek sarritan ikasgelako garapena oztopatzen dute, edo helburu bezala, beste eskolakideekiko jazarpen berbala edo fisikoa izaten dute jomuga.

Rol horren aukeraketan, hala norbanako faktore psikologikoak nola inguruak (familia eta eskola) eragina izaten dute. Beraz, eskola jazarpeneko arazo baten aurrean, eskuhartzea globala izan behar du eta familia, eskola eta ikasle horrekin elkarrekintzan dauden pertsona ororen inplikazioa beharrezkoa izango da.

Bere nagusitasuna azpimarratzeko, normalean mendekotasun estalia izaten dena, ikasle bat beste ikasle ahulago batez (kausa psikologiko edo fisikoengatik... trebetasun edo gaitasun batengatik...) baliatzen denean, lehen horrek modu agresiboan eta krudelkeriaz erreakzionatu ohi du. Normalean, ikasle baztertzaileak ez ohi du berak bakarrik baztertzen, baizik eta konpartsaren bat behar izaten du, izaera ahuleko kideak, haiek biktima bihurtzeko beldurrez jolasa onartzen diotenak.

Bai ikasle bakoitzarentzako, zein ikasgelako klimarentzako, oso onuragarria izango da ikasgelan ematen diren rola aztertzea, aztoratzaileak berbideratu eta elkarbizitza egokia mantentzen laguntzen duten ikasleak indartzeko. Behaketa honen emaitzen informazioa oso baliagarria izango da lan taldeak, jolasak, eta abar egiteko orduan, eta jarrera negatiboak eraldatzen joatea bermatuko da.



SINOPSISIA ETA PERTSONAIAK

A. Sinopsia

Miren neska atsegina da, DBHn ikasten du, instituto berri batera heldu da eta berehala egokitzen da, lagun asko egin eta nota onak ateratzen ditu. Institutoan beste neska bat dago, Leire, zeinek ez duen Miren asko atsegin. Leirek Mireni buruzko gezurrak asmatzen hasten da. Bere lagunei esaten die Miren haien inguruan gaizkiesaka ibiltzen dela, institutoko mutil bat konbentzitzen du etorri berriari broma itsusiak egin diezazkion...

B. Pertsonaiak

Pertsonai ezberdinekin, eskola jazarpeneko egoera ematen denean, ikasgelatan ematen diren rol nagusien eredu esanguratsua aurkezten digu antzerki talde honek.

Miren akademikoki bikaina den neska da, atsegina eta irekia, lagunak egiteko erraztasunarekin, inozentea eta albokoak laguntzeko prestutasuna daukana.

Leire neska dudatsua da, etxean arazoak dituena eta gaizki sentitzen da beste pertsona batzuek berak baino arreta gehiago daukatenean institutoan.

Jon institutoko ikasle bat da. Printzipioz ez dio inori minik eman nahi, baina bere burua konbentzitzen uzten du Mireni broma bat egiteko, horren larria ez dela pentsatuz.

Sara, Laia eta Gorane Mirenen lagunak dira, baina lagun izateari uzten diote, Leirek Mireni buruzko istorioak asmatzen hastean. Ikusi ez duten eta zuzenean entzun ez duten istorioa sinestea hautatzen dute, Mirenekin zuzenean hitz egin ordez arazoa konpontzeko.



IKASLEEKIN EGITEKO AURRE JARDUEREN PROPOSAMENA

Autokontzeptu egokia eta autoestimua positiboa lantzeko proposamen ezerbedinak.

1. Autoestimua lantzea

Pertsona bakoitzak gauza ezberdinak egin ditzake. Norbanakoa bakarra eta originala dela jakitea, gu geu izatea bermatzen digu, garen bezala aurkeztea, entzutea, imaginatzea eta sortzea. Autoestimua egokia daukan horrek pertsona ezberdin bezala baloratu dezake bere burua eta arrisku eta frustrazioak, pertsona bezala hazteko ikaskuntza bezala onartu ditzake.

a) Denok gara desberdinak. Gauza desberdinak sortzen ditugu..

Mahaiak banatu, ondokoak zer egiten duen ez ikusteko. Ikasle bakoitzak irudi bat egin beharko du, ezagunak zaizkion 4 elementu elkarren artean erlazionatuz (esaterako, etxea, txakurra, zuhaitza eta txoria).

Amaitzean irudi guztiak ikasgelatik zintzilikatuko dira eta haur guztiak isiltsasunean irudi guztiak behatu ahal izango dituzte, arte erakusketa bat izango balitz bezala.

Irudiak behatu ondoren, haur bakoitzak zer irudikatu duen eta zer esanahi daukan azalduko du. Irakasleak honako galderen antzekoak planteatuko ditu eta ikasgela guztiaren parte hartzea bermatuko duen solasaldiari ekingo zaio:

- Zure irudia atsegin duzu? Zure kideena ikusi ondoren, zer pentsatu duzu zure irudiaz?
 - Irudi ezberdin bat egin izana gustatuko litzaizuke? Ikusi ahal duzue zer nolako sorkuntza politak egin dituzuen? Elementu berdinekin eta.., irudi guztiak ezberdinak izan dira eta oso politak!
- Solasaldian zehar, ikasleek konparazio lehiakorak erabiltzea ekidingo da (hobea-txarragoa, polita-itsusia), irudimena, ezberdintasuna eta norbanakotasuna baloratzen lagunduz.



b) Guztiok ezin ditzakegu gauza berdinak egin. Gorputz propioa eta gaitasun pertsonalak baloratu. Ingurukoen posibilitateez ohartu.

Eguneroko jardunen inguruko (orraztu, oinez ibili, hortzak garbitu, idatzi...) solasaldia irekiko dugu eta hauek egiteko gorpurtzeko zein atal erabiltzen ditugun hauteman.

Bikoteka, kideren baten gurputz artikulazio bat estaliko dugu, benda edo oihal batekin, mugimenduak zailduz: eskumuturra, belauna, orkatila, atzamarrak...

Irakasleak gorputz atal hori inplikatzeko duen ekintzak esaten joango da, ikasleek konturatu daitezkeen zer nolako zailtasunak suposatzen dituen muga fisikoak izatea.

Positiboa litzateke, ikasle bakoitzak artikulazio ezberdinen inmovilizazioarekin esperimentatu ahal izatea. Ondorengoak bezalako galderekin solasaldiari ekingo diogu:

- Zure gorputzaren inguruan, zertaz ohartu zara gaur?
- Pentsa ezazu zure egunerokotasunean normaltasunez egin ditzakezun ekintzak baina gaur horrenbeste kosta zaizkizunak..
- Guztiok gauza berberak egin al ditzakegu?





c) Guztiok ez dauzkagu beti iritzi berdinak eta ez zaizkigu gauza berdinak gusutzen. Gai baten inguruan iritzi propioa izatea baloratuko dugu, baina aldi berean besteen iritziak ere entzunez eta errespetatuz.

Orri batean, ikasgai ezberdinen inguruan atsegin ditugun eta atsegin ez ditugun gauzak idatziko ditugu- Matematikak, Plastika, Gorputz Hezkuntza, Musika..., esate baterako:

IKASGAIK	ATSEGIN DUT	EZ DUT ATSEGIN
Gorputz Hezk.	Jolasak	Plintonean salto egitea
Musika	Abestea	Txirula jotzea
Plastika		
Matematikak		
Ingelera		

Jasotako emaitzak elkarbanatuko ditugu eta ikasleei ohartarazten lagunduko diegu normalean atsegin ez ditugun gauzak, gauzatzea gehien kostatzen zaizkigunak izaten direla. Ikasleak pertsonen artean banatuak dauden trebetasunez ohartu beharko dira.



2. Konponbide positiboak bilatu itzazu: aurpegi tristek / aurpegi zoriontsuak. Arazoak erlatibizatu eta ondorio positiboak atera ditzakegu borondatea jarriz gero.

Materiala:

- Aurpegi zoriontsu bat marrazturik duten orriak.
- Aurpegi triste bat marrazturik duten orriak.

Ikasleak bikoteka jarri, betiere bikoteetako kide bat aurpegi tristea eta beste kidea aurpegi zoriontsua izango dutelarik. Irakasleak egoera problematiko ezberdinak plateatuko ditu eta ikasle bakoitzak egoera horien balorazio positibo edo negatiboa aipatuko du, ikasleari egokitu zaion aurpegi triste edo zoriontsuaren arabera, eta taula batean jasoko dute:

EGOERA	EMOZIOA	PENTSAMENDUA
Lagunek ez didate haiekin jolasten uzten.	Negatiboa	Inork ere ez nau maite.
	Positiboa	Ziur ez dakitela haiek egiten ez dakiten zerbait egiten badakidala.
Gurasoek ez didate bideojokekin jolasten uzten.	Negatiboa	Gogaitu egin nahi naute.
	Positiboa	Agian etxeko lanak aurretik egiten baditut, konbentzitu ditzaket.
Nire txoriak alde egin du.	Negatiboa	Gosez hilko da.
	Positiboa	Txoriak oso azkarrak dira, aurrera irengo da.

Ondoren, solasaldia sortuko dugu, egoera berdinek sotu dituzten pentsamendu positibo eta negatiboak azaltzeko eta gure zoriotasunaren inguruan hausnartzeko. Noiz gara zoriontsuagoak, pentsamendu positiboa daukagunean, ala negatiboa daukagunean.



3. Mr. Bullying lanaren aurkezpena

Puntu honetan, istorioaren laburpen txikia egingo dugu, agertzen diren pertsonaien inguruko aipamen txikiak emanez. Miren eta bere ikaskideen arteko arazoan jarriko dugu ardatza. Ikasleekin solasaldi bat hasiko dugu ondorengo galdez baliatuz:

- Miren bere ikasgelan gustura sentitzen dela uste al duzue?

.....

.....

.....

- Zer gertatu beharko litzateke zoriontsuago sentitzeko?

.....

.....

.....

- Zer uste duzue egin beharko luketela bere ikaskideek?

.....

.....

.....

- Zergatik uste duzue Leire Mirenekin tematzen dela?

.....

.....

.....

- Mirenek zer egin dezake gusturago sentitzeko?

.....

.....

.....



- Hasieran bere lagunak diren horiek, lagundu dezaketela uste al duzue?

.....

.....

.....

Ikasleek Mirenek dituen arazoak haien ikasgelan ere eman daitezkeela ohartu daitezen, **KEXEN POSTONTZIA** sortu daiteke. Ikasleek kideren batekin izandako arazo edo istiluen berri eman dezakete, gertatutako hori postontzian sartuz, beti ere izenik eman gabe (adb. Mutiko batzuek ez didate haiekin futbolearen jolastan utzi, eta abar). Tutoretza egunetan, irakasleak kexak irakurriko ditu, ikasleei arazoak ekiditzeko edota gertatutako kasuetan irtenbide positiboak bilatzeko, modu ezberdinen inguruan hausnartzen lagunduz.





5. Emanaldia. Dramaturgia.

Honako galderei erantzun:

a) Zenbat pertsonai agertzen dira antzezlan honetan? Zenbat aktore/aktoresek parte hartzen dute?

.....

.....

.....

b) Nola doaz jantzia pertsonaiak?

- Miren

.....

.....

.....

- Leire

.....

.....

.....

c) Zein da gehien gustatu zaizun zatia? Zergatik?

.....

.....

.....



d) Zein toki ezberdinetan gertatzen da istorioa?

.....

.....

.....

.....

.....

e) Nola irudikatzen dira leku horiek? Zer gauza daude eskenatokian?

.....

.....

.....

.....

.....

f) Aktoresek objektuak erabiltzen al dituzte? Zeintzuk?

.....

.....

.....

.....


.....





5. Musika eremua.

Ikasleek taldeka abesti bana asmatuko dute. Estrofa bakoitzak taldeko kide baten inguruan hitz egingo du, beti ere modu positiboan. Saiatu talde heterogeneoak sortzen eta ahalegindu oso lagunak diren ikasleak elkarrekin ez jartzen.





7. Emanaldiaren ondorengo hausnarketa.

a) Esan ezazu pertsonaia bakoitzak egin duen gauza positibo edo negatibo bat:

- Miren

.....

.....

.....

- Leire

.....

.....

.....

- Jom

.....

.....

.....

b) Zein zati gustatu zaizu gehien? Zergatik?

.....

.....

.....



c) Inoiz gertatu al zaizu Mireni gertatutakoa bezalako antzeko zerbait?

.....

.....

.....

d) Zelan lagundu diezaiokegu bakarrik sentitzen den kide bati?

.....


.....

.....



9. Azken jarduera.

Ikasgelatik askatasunez ibili eta seinalea entzutean, bikoteka jarri. Bikote bakoitzeko kide bakoitzak aurrean daukan kidearen ezaugarri positibo bat esango du. Egin ezazue beharrezkoa den aldi guztietan, guztiek besteen inguruan zerba it positiboa esan ahal izateko moduan.





www.transeduca.com

info@transeduca.com

911 138 140